

GIPUZKOAKO MENDI ELKARTEEN ADIERAZPENA ARALARGO PISTEN INGURUAN

1.- Sarrera

Aralarko mendilerroa mendi ertaineko eremu bat da, balio geologiko eta geomorfologiko nabarmenak dituena. Azalera murrizta duen erliebe menderatzailea da, nagusiki karstikoa, non euri-urak sakoneran iragazten baitira lurpeko erreka eta iturburuak sorraraziz. Lurpeko sare hidrikoak ez du auto-arazketarako gaitasunik. Hori dela eta, Aralarreko eremua oso zaugarritzat dago kalifikatuta lurpeko akuiferoak kutsatzeari dagokionez.

Halaber, Euskal Herriko serie jurasiko osoena dago bertan, egitura tektoniko eredugarria, glaziar kuaternarioko aztarnekin eta balio pedagogiko oso handiaz. Gainera, Kantauri - Mediterraneo bereizten dituen banalerroko zatia da Aralar eta, horren ondorioz, natural aldetiko balio handiko ingurunea da, fauna eta florari dagokionez aberastasun handikoa, Europa mailan babestutako habitatak barne dituena. Orobat, mendi enblematikoa da, euskal irudikarian balio kultural izugarria duena.

Horren guztiorren ondorioz, Aralar oso eremu sentsible eta zaugarria da giza jardueraren aurrean, eta babestutako espazio naturalaren agiria jaso du, Parke Natural eta Kontserbazio Bereziko Eremu kategorietan, Natura 2000 Europako sare ekologikoaren barnean.

Artzaintza bertako jarduera ekonomiko gailena izan da, bestelako jarduera garrantzitsu batzuk ahortzi gabe, esate baterako, meatzaritza, ikazkintza eta baso-ustiapena, azken horiek dagoeneko desagertuak Mendilerroaren inguruetan, baina beren isla utzi dutenak oinordetzan hartutako paisaia. Artzaintzak arbasoen ustiapen modua mantendu du duela urte gutxira arte. Berriki horretara dedikatzen diren pertsona kopuruak behera egin badu ere, abere kopurua ez da murriztu, izan ere, artaldetako buru kopurua areagotu egin da. Halaber, denbora partzialeko abeltzaina agertu da. Hala, hark larreak erabiltzeko bere eskubidea baliatuz, Mendilerroan abere-buru gehiago ditu, bere jarduera nagusiaren osagarri modura diru-sarrerak ematen dizkiona.

Ardien artzaintzak nolabaiteko oreka mantendu du Aralarreko sistemarekin. Egungo abeltzaintza-ustiapenaren ondorioz akuiferoetako uraren kalitatea murriztu egiten da, higadura-fenomenoak sortzen dira eta lurrak ez dira horren aberatsak. Haatik, indarreko araudiarekin eta Mankomunitateak ingurunearen gainean burutzen izan dituen esku-hartzearekin inpaktu horiek itzulgarriak dira.

Pisten hedapenak inpaktu garrantzitsu eta itzulezina izan dezake

Pistak hedatzeko proiektuarekin goitik behera aldatzen da mendi ertaineko ingurune zaugarri batekin orekatua den artzaintzaren kontzeptua. Halako tamaina duen proiektuak berekin dakar Aralarreko espazioa abeltzaintza-ustiapena nagusi duen lurralde bilakatzea. Eraldaketa horrek ez du atzera bueltarik eta, hala ere, proiektuak ez du ingurunearen gaineko erresilientziari eta halako ezaugarriak dituen esku-hartze bat hartzeko ahalmenari buruzko aurretiko azterketarik.

Proiektatutako esku-hartzea ez dago balio handia duen, sentsiblea den eta ingurunean aldaketak hartzeko ahalmen urria duen espazio natural bat hobetzeko pentsatuta. Aitzitik, azpiegitura horren garapenarekin soilik abeltzaintza-ustiapena areagotzea bultzatzen da, Parke Naturalaren irudiarekin bateraezina dirudien prozesu bat. Horrela, gizartearen zati garrantzitsu bati muzin egiten zaio, ingurumen-narriaduraren aurka sentsibilizaturik dagoena eta kalitatezko espazio naturalak egotea beharrezkotzat jotzen duena, batez ere, biztanleriari dagokionez dentsitate handikoa den gure lurraldean.

Gainera, derrigorrez azpimarratu behar da Aralar erliebe menderatzailea dela eskualdean. Horrek bisualki ahultasun handia inplikatzeko du, obrak sorraraziko lukeen paisaia aldetiko inpaktu handia hartzeko ekidintza lukeena. Inpaktu horrek Mendilerrera sartzen diren mendizale eta txangozaleengan ez ezik, inguruko herrietako biztanleengan ere izango luke eragina, izan ere, Goroskintxu-Elutxeta-Saltarri-Alotza pistak Oriako haraneko leku gehienetatik ikusten den Mendilerroaren paisaia enblematikoa aldatzea ekarriko luke.

Azkenik, ezinbestekoa da Aralarrek duen balio kultural eta sentimental handia kontuan hartzea, mitoak eta elezaharrak barnerraten dituen, izan ere, etorkizuneko belaunaldientzat zaindu behar dugun paisaia eta lurralde bati dagokion ondare ez materiala da.

2.- Adierazpena

- Tamaina honetako esku-hartze batek dituen eraginak ezagututa, Aralarko Natur-Parkearen kudeaketak etorkizun bideragarria berma dezan, sektore guztien arteko **partaidetza prozesu ireki bat** zabaltzea eskatzen dugu.
- Aralar bezalako ingurune ahul eta hauskorrean aurreikusita dauden azpiegiturak jasateko gaitasuna aurreikusteko Gipuzkoako Foru Aldundiari **azterketa zientifiko sakona** eta zehatza egin dezan eskatzen diogu.
- Era berean, Aralarren egiten diren aktibitate ekonomikoen **azterketa sozio-ekonomikoa** egitea eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- Gurea bezalako gizarte heldu eta informatuak egokiak jotzen dituen erabakiak modu demokratiko batean har ditzan, proiektuaren norainokotasuna eta helburuei buruzko **informazioaren gardentasunaren** premia azpimarratzen dugu.
- Aipatutako azterketak egin eta parte hartze prozesua bukatu arte pisten obrak eta etorkizunerako aurreikusita dauden proiektuak **gelditzea** eskatzen dugu.
- GMFren estatutuetan jaso dagoen bezala, Natur guneen eta bereziki Aralarko Parke Naturalaren kontserbazioaren defentsan **parte aktiboa** izango gara.
- Gipuzkoako Mendizale Federazioari dokumentu hau **Batzar Nagusietako talde politiko guztiei** eta **Foru Aldundiko gobernuari** bidali diezaien eta bere **web orrian** argitaratu dezan eskatzen diogu.

Donostian, 2017ko maiatzaren 18an